

PRUEBA DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD
MAYORES DE 25 Y 45 AÑOS

PROBA OROKORRA

2020ko PROBA



EUSKARA

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK: 25 ETA 45 URTETIK
GORAKOAK

2020

EUSKARA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 y 45 AÑOS

2020

EUSKARA

Argibideak

Galdera bakoitzaren ondoren dator bere balioa.

Irakurri testu hau eta erantzun testuaren ostean datozen galderei.



“Bai polita! Niretzako egina dela esango nuke!”. Zenbat aldiz izan duzu buruan esaldi hori, telebistan edo denda batean iragarki bat ikusi ondoren, eta azkenean kolonia hori, auto hori edo moda-modako oinetako horiek erosi nahian amaitu duzu? Edo, zenbat aldiz joan zara supermerkatu bukatutako detergentea erostera, eta, azkenean opil industrialak erosi dituzu tripak orroka zenituelako eta bazkaltzeko garaia zelako? Askotan zentzuz erosten dugula pentsatzen dugu, baina benetan emozioen bitartez egiten dugu.

Konfiantza, botere eta kontrol-nahia, gogo bizia, itxaropena, kidesasuna, gauza berriak aurkitzea... Horiek guztiak sentimenduak dira, eta gure erabakietan eragiten dute. Markek badakite hori; beraz, eragin handiko komunikazio-estrategia bat sortzeko baliatzen dute. Marketin emozionala eta neuromarketina diziplina finkatuak dira eta kontsumoa sustatzea dute xede, emozioak aktibatuta. Gogoan al duzu telebistako iragarki hura? Panpina baten publizitatea zen eta “alucina, vecina” esaldia aipatzen zen. Mezu horren helburua, jostailu harekin asko gozatuko zela adierazteaz gain, zera adieraztea ere bazen, jostailu hori zuena auzoko haurrik ospetsuena izango zela.

Azterketa zientifikoek diotenez, erosteko erabakia hartzeko prozesuaren % 75etik % 85era bitarte subkontzientea da, eta sentimenduak faktore erabakigarriak dira produktu bat aukeratzeko garaian. Van Goghek esana: “emozio txikiak dira gure bizitzaren kapitainak eta konturatu ere egin gabe men egiten diegu”.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK: 25 ETA 45 URTETIK
GORAKOAK

2020

EUSKARA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 y 45 AÑOS

2020

EUSKARA

Logikak, benetako premiak, alderdi ebaluagarriek –hala nola, kalitatea eta prezioa– eta, azken batean, erosketa egiteko erabaki arrazionalak hartzeak protagonismoa galtzen dute gogo-aldarteak eta emozioek eragindako ekintzen aurrean. Izan ere, jendeak kontsumoaren bitartez bere nahiak bete nahi izaten ditu, emozio horiek askatzeko. Horrelako estimuluei aurre egiteko, erosketak erantzukizunez egin behar dira.

Kontsumoa oinarrizko jarduera bat da, eta errepikakorra. Jarduera hori aztertu egin behar da emozioek erosteko erabakietan nola eragiten duten identifikatu ahal izateko eta emozio horiek kudeatzen ikasteko. “Gutizia bat” erostea ona da, baina “gutizia bat” dela jabetu behar dugu. Erostea bulkada sentitzen baduzu, jabetu zaitez zure gorputza nola dagoen, eguneko zer ordu den, gose ote zaren, zer gertatu den edo zer ikusi duzun. Identifikatu erosteko premia hori eragin dizun emozioa, eta igaro zaitez kontsumo inkontzientetik kontsumo kontzientera.

Kontsumobide/ Ikasbil (egokitua)

GALDERAK

1.- Testuaren arabera, esaldi hauek egiazkoak (E) ala gezurrezkoak (G) dira? Idatzi ondoan. (0, 8 puntu)

Zuzendu gezurrezkoak direnak edo esan zergatik diren okerrak. (0,8 puntu)

- 1) Datuen arabera, beti erosten dugu emozioek bultzatuta.
- 2) Markek sentimenduak baliatzen dituzte komunikazio-estrategiak sortzeko.
- 3) Marketing emozionalaren xedea da pertsonak hobeto sentitzea.
- 4) Inkontzientea guk uste baino boteretsuagoa da.
- 5) Erostea premia sentitzen baduzu, pentsatu behar duzu zer emozioek eragiten dizun premia hori.
- 6) Neuromarketinak erosketa arrazionala egiten laguntzen du.
- 7) Erabakien %15 edo ez dago emozioen menpe.
- 8) Testuaren arabera kontsumoa da saihestu behar dugun zerbait.

2.- Laburtu testuko paragrafo bakoitzaren ideia nagusia. (0,4x 5= 2 puntu)

3.- Testuak helarazi nahi duen ideia nagusiaren arabera, zein litzateke hauetatik izenbururik egokiena? (0,5 ptu.)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK: 25 ETA 45 URTETIK
GORAKOAK

2020

EUSKARA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 y 45 AÑOS

2020

EUSKARA

- A. Emozioek gure nahiak betetzen dituzte.
- B. Emozioak gure bizitzaren parte dira.
- C. Emozioek ez dute gure erosketen jabe izan behar.
- D. Kontsumoak erosketak inkontzientea behar du.

4.- Zer testu mota da eta zergatik? Arrazoituz erantzuna. Erantzun osoa baino ez da baloratuko. (0, 8 puntu)

- a) Argudio testua
- b) Azalpen testua
- c) Narrazio testua
- d) Jarraibidezko testua

5.- Testuko esaldi hauen esanahia azaldu zeure hitzak erabiliz. (0,5x3: 1,5 puntu)

- *Askotan zentzuz erosten dugula pentsatzen dugu*
- *Kontsumoa sustatzea dute xede*
- *(...) konturatu ere egin gabe men egiten diegu*

6.- Testuaren arabera, hauetako bat EZ da sentimendua. Zein? (0,5 puntu)

- a) orroaka
- b) gogo bizia
- c) itxaropena
- d) kideatasuna

7.- Taulan dauden definizioak/sinonimoak irakurri eta txertatu horietako bakoitzari dagokion hitza testuan duen esanahia kontuan hartuta. (0,5 puntu)

bulkada gutizia premia kudeatu gogo-aldartea



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK: 25 ETA 45 URTETIK
GORAKOAK

2020

EUSKARA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 y 45 AÑOS

2020

EUSKARA

Testuko hitza	Sinonimoa edo baliokidea
	Behar handia, larria edo hertsia.
	Zerbait egiteko premia edo berehalako desira
	Egiteko baten antolaketa-arazoan eta diru gorabeheren arreta izan.
	Egoera mental edo emozioa da, bereziki gertaera jakin eta zehatz batekin zuzenean loturik ez dagoena.
	Irrika, guraria, zerbaiterako edo norbaitenganako nahi bizia da.

8.- Bilatu testuan lokailu hauek (0,6 puntu):

- Adibidea ematekoa
- Kausa adieraztekoa
- Ondorioa adieraztekoa

9.- Testuan oinarrituta, idatzi lau aholku erosketak modu egokian egin ahal izateko eta zergatia azaldu. (2 puntu)



**EBAZPENA EUSKARA
(2020)**

1.-

1)	G
2)	E
3)	G
4)	E
5)	E
6)	G
7)	E
8)	G

- 1) Beti, ez: datuen arabera, gure erosketen %75tik gora dago emozioek bultzatua.
- 3) Marketin emozionalak kontsumoa bultzatu nahi du, ez du nahi pertsonak hobeto sentitzea, produktuak saldu behar ditu, besterik ez.
- 6) Neuromarketinak kontsumo inkontzientea bultzatzen du.
- 8) Testuak ez du kontsumoa zerbait negatibo gisa ikusten, baizik eta eguneroko jardura gisa, errepikakorra, egin behar duguna, baina kontzienteki.

2.-

1. paragrafoa	Emozioek gidatuta erosten dugu.
2 paragrafoa	Markek sentimenduak baliatzen dituzte gudan eragiteko.
3. paragrafoa	Ikerketek erakusten dute 75-85% bitarteko erabakiak emozioek eraginda daudela.
4. paragrafoa	Erabaki arrazionalak pisua galtzen dute emozioen aurrean. logikaz eta pentsatuz erosi behar dugu.
5. paragrafoa	Gure burua aztertu eta emozioak identifikatu behar ditugu, kontsumo inkontzientea kontsumo kontziente bihurtu behar dugu.



3.- C.

4.- Argudio testua. Tesiaren aldeko argudioak ematen ditu, emozioek gure portaeran eta erosketetan eragiten dute. Horrez gain, aholkuak ematen ditu irakurlearengan eragiteko: kontsumo inkontzientea kontsumo kontziente bihurtu behar dugu.

5.-

- Burua erabiliz eta modu kontzientean erosten dugula uste dugu, nahiz eta egia ez izan.
- Haien helburua jendeak gero eta gehiago kontsumitzea da, kontsumoa bultzatzea, alegia.
- Kasu egiten diegu, haien menpe jartzen gara eta obeditu egiten dugu, modu inkontzientean, konturatu gabe egiten dugu.

6.- A. orroaka

7.-

Testuko hitza	Sinonimoa edo baliokidea
premia	Behar handia, larria edo hertsia.
bulkada	Zerbait egiteko premia edo berehalako desira
kudeatu	Egiteko baten antolaketa-arazoen eta diru gorabeheren arreta izan.
gogo-aldarte	Egoera mental edo emozioa da, bereziki gertaera jakin eta zehatz batekin zuzenean loturik ez dagoena.
gutizia	Irrika, guraria, zerbaiterako edo norbaitenganako nahi bizia da.

- 8.- a) Adibidea ematekoa: **hala nola**
b) Kausa adieraztekoa: **izan ere,**
c) Ondorioa adieraztekoa: **beraz,**

9.- Erantzun posible asko daude, testuak bide asko ematen ditu erantzuna garatzeko, esaterako:

- Erreparatu kalitateari eta prezioari.
- Ondo pentsatu erosi aurretik zer behar duzun.
- Identifikatu zer nolako sentimenduak eta emozioak eragiten dizkizun produktu horrek...
- Pentsatu birritan produktu hori benetan behar duzun ala ez.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK: 25 ETA 45 URTETIK
GORAKOAK

2020

EUSKARA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 y 45 AÑOS

2020

EUSKARA

- Ez joan dendara gose zarenean, bestela erosi behar ez dituzun jakiak erosiko dituzu.